

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****VITORIA-GASTEIZKO UDALA****INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA**

Gasteizko lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan energia eta ura aurrezteko diru-laguntzen deialdiaren deialdiaren eta oinarrien laburpena. Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariak deialdia eta oinarriak onartu zituen 2019ko apirilaren 18an

BDNS (Identif.): 453492

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Gasteizko udal-barrutian dauden lehen hezkuntzako ikastetxek jasoko dituzte diru-laguntzak.

Bigarrena. Helburua

Oinarri hauen bidez, Gasteizko udalerriko lehen hezkuntzako ikastetxe publikotan energia eta edateko ura aurrezteko eta erabilera eraginkorragoak sustatzeko diru-laguntzak arautu nahi dira, Europako Euronet 50/50 ekimena oinarri hartuta.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariak 2019ko apirilaren 18an onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 12.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, eta epea deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunean hasiko da. Laguntza-eskaerak Gasteizko Udalaren Erregistroan edo herritarren arretarako udal-bulegoetan aurkeztuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 26an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Presidentea
IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ